



HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariaren 2023ko azaroaren 7ko **EBAZPENA**, 2023-2024 ikasturterako Ikasiker lankidetza–beketan zuzendu beharreko eskaerak zerrendatzen dituena.

GERTAKARIAK

Lehena.- Hezkuntza sailburuaren 2023ko ekainaren 20ko AGINDUAREN bidez Ikasiker lankidetza–beketarako deialdia egin zen, 2023-2024 ikasturterako (2023ko ekainaren 29ko EHAA, 123. zk.).

Bigarrena.- Aginduak 9. artikuluan xedatutakoa jarraituta, eskaerak aurkezteko epea 2023ko irailaren 15ean bukatu zen.

Hirugarrena.- Aginduak 10.4 artikuluan xedatzen duenez, eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio zuzenketak egin ditzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraituta.

Ondorioz,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean aipatzen diren zuzendu beharreko eskaeren zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.- Hamar eguneko zuzentze-epea ezartzea. Zuzentze-epea 2023ko azaroaren 8tik 21ra arte izango da, biak barne.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, epe hori igaro eta gero, interesdunak ez baditu agiriak aurkezten, eskaerari uko egiten diola ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikokoaren data

Miren Artaraz Miñón
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KORDINAZIOKO ZUZENDARIA